

BALOREZKO PROPOSAMENA

Hasiera batean, diru laguntzekin funtzionatzea da gure ideia, beraz ez dugu presarik diru sarrerak edukitzeko. Gainera, **irabazi-asmorik gabeko elkarte**a izango litzateke. Aurrera egin ahala helburua ikertutako sendagai berrien salmentari esker finantzatzea da, baina beti ere irabaziak izateko helbururik gabe.



Beste alde batetik, posizionamendu estrategiko batean egongo da, behean azalduko dugun bezala. Ez hori bakarrik Espainia biztanle kopurua kontuan izanda kokaina munduko gehien kontsumitzen duen 3. herrialdea da, beraz, logikoa da pentsatzea gure produktuak arrakasta izugarria edukiko lukeela antzeko enpresarik ez dagoelako.

LOKALAREN KOKAPENA:

Cofradia de Arriaga Kalea, 1

01012 Vitoria-Gasteiz

Araba



Inguruan lehia ez dago, **produktu pionero bat** delako.

Hasiera batean lokala administrazioa lana egiteko leku bat izango da, baina erakusleihoan informazioa jarriko dugu, baita **jendearen galderak erantzun** eta aurpegiz-aurpegi informatu. Bestalde, liburuxkak banatuko ditugu informazioa azalduz, baita **hitzarmenak** egin euskal herriko liburutegietan, herrietako festen hasieran, anbulategietan



KOKAINE

eta ospitaleetan, etab.

<https://goo.gl/maps/yKre7gnYjx42>

Hala ere, gure produktuak baditu ahuleziak eta mehatxuak ere, besteak beste, enpresa handiagoak egon daitekeela interesatuak produktuan eta haiek esperientzia dute eta guk ez. Baina horrek alde onak ere eduki ditzakete, **motibatuta** gaudela, guretzat proiektu garrantzitsu bat dela, ikastera ohituta gaudela, beraz, asko informatu gaitzke eta edozeinekin harremanetan jarri, oso **pertseberanteak** gara, etab. Gainera, gazteak gara eta geuk ere gure aukera eduki behar dugu, beraz gu bezalako gazteei aukera bat eman behar zaie, eta beste alde batetik, ikerketa taldea Chicagoko Unibertsitateko talde batek garatu du, beraz, espero dugu gure enpresari aukera bat ematea, irakasleek osatutako talde bat bada ikasleekin lan egitera ohituta daudelako eta badakitelako nolako potentziala eduki ditzaketen eta motibatuta badaude nolako lan politak eta onak atera daitekeen. Ikasleak osatutako talde bat bada, espero dugu haiek bere lagunen eta irakasleen laguntza eta babesa eduki badute, guri ere ematea, eta haiek ez badute eduki ziur gaude nahiko zutela, beraz, berriro ere guri ematea espero dugu.

Beste alde batetik, ulertzen dugu proiektu oso garrantzitsua dela, eta ikerketa taldea profesionalen eskuetan utzi nahia, beraz, beste enpresa horrekin kolaborazio bat egin nahiko genuke. Gure taldea jende **gazteez** bakarrik dago osatuta, beraz, guri erraxago egingo zaigu gazteekin hitz egitea eta gure ustez gehiago hartuko dute kontuan guk ematen badiegu informazioa. Guri, haien adinekoak edo gutxi gorabehera, hain kontzientziatuak ikustea haiei **kontzientziatu** diezaike.


Gainera, enpresek agian ez dute proiektu hau aurrera eraman nahi zenbait arrisku dituelako eta diru kopuru handia galdu dezaketelako. Arrisku horietako batzuk dira, adibidez, ez dela segurua aurrera ateratzea. Proiektuaren deskribapenean azaldu dugun bezala, farmakoa oraindik ez da probatu gizakietan, beraz, agian ez du funtzionatzen.

BARNE-ANALISIA	INDARRAK	AHULEZIAK
	-Hasierra batean helburua diru laguntzekin funtzionatzea denez, ez dago irabaziak lortzeko presarik.	-Bezera posible gutxi. -Hasi berriak gara. -Bolondresak behar ditugu.
KANPO-ANALISIA	AUKERAK	MEHATXUAK
	-Posizionamendu estrategikoak. -Antzeko beste enpresarik ez dago. -Espainia biztanle kopurua kontuan izanda munduko gehien kontsumitzen duen 3. herrialdea da.	-Ez lortzea autofinantzaketari esker funtzionatzea. -Ez da segurua aurrera ateratzea.



KOKAINE

Gure enpresa besteetatik ezberdindu da guk **zerbitzu bat eskaini** arren, guregana iristea erraza izango dela eta **kontzientzia lanak** egingo ditugula, non, lehenago azaldu bezala, gazteak guri hain kontzientziatuta ikusita iritziz alda dezakete. Kontzientzia kanpaina horiek kokainaren inguruan egingo genituen gehien bat, kokainaren efektu kaltegarriak, gure gorputzari zer egiten dion, adierazpen grafikoak, etab. Horrekin batera, gure enpresak **informazioa zabalduko** du farmakoaren inguruan, eta beti bezala, kokainak eragiten duena ere azaldu egin beharko dugu, bestela nola hartuko du jendeak gure farmakoa ez badakite nola kaltetzen dion kokaina? Bakarrik abantailak ikusiko dituzte guk haiei begiak ireki arte!



Ez hori bakarrik, Kokaine-k **ikerketa lana** egiten ere ahalegindu da Chicagoko Unibertsitateko ikerketa taldeari zenbait zeregin errazteko. Hori alde batera utzita, ikerketa taldekoek langile gehiago beharko balituzkete, bolondresak eskatuko genituzke hemen.

